

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
<b>PRACTICUM I</b>	<b>141218</b>	<b>2021-2022</b>
Titulazioa	Maila	Sehilekoa
<b>LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA</b>	<b>2</b>	<b>2</b>
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
<b>Derrigorrezkoa</b>	<b>12</b>	<b>EUSKARA</b>
Irakaslea(k)		
<b>JONE OZERINJAUREGI</b>		

### Justifikazioa

Praktikaldi honen helburu nagusia da, batetik, ikaslea ikastetxeko errealitatera hurbiltzea, ikastetxearen antolaketa eta funtzionamenduari buruzko datuen behaketa, bilketa selektiboa eta azterketa egitea. Era berean, gela edo talde zehatz baten dinamika eta praktika ezagutzuz joango dira, eta arlo soziopedagogiko eta didaktikoei dagozkien datu-bilketa egin eta datuok aztertuko dituzte. Hona hemen ikasgaiaren helburu nagusiak:

- Ikastetxean eta ikasgelan tutoreekin eta ikastetxeko beste langileekin **lankide izan**, gelaren eta ikastetxearen dinamika itxuratzen duten arlo guztietan, irakasle-lanaren agerbide guztiak eta lan hori garatzeko baldintzak ezagutu eta ulertzeko.
- Ikastetxearen eta gelaren dinamika osotzen duten arloak **behatu**, bai eta dinamika horretatik sortzen diren ikas-irakaskuntza prozesuak. Era berean, behatutako errealitatea ulertu eta ondorioak atera, errealitate horretan parte hartuz eta inplikatzuz.
- Banakako zein taldeko **hausnarketa egin**, eta unibertsitatean landutako ereduak ikastetxeko eta ikasgelako errealitatean non ikusten diren eta nola deskribatu.

## Aurrebaldintzak

Lehenengo praktikaldia egiteko beharrezkoa da oinarrizko prestakuntzakoak diren ikasgai guztiak matrikulatuta edota gaindituta izatea

## Gaitasunak

### Gaitasun orokorrak:

**GO.1. SEN ETIKOA.** Norberaren edo besteen on moralera positiboki makurtzea (hau da, ongia den edo esan nahi duen guztira, zentzuzko bizipena den guztira, pertsonaren errealizazioa dakarren guztira, justizia den edo esan nahi duen guztira) eta on moral horretan irautea.

2 Menderatze maila: Balio etikoak eta sentiberatasun moralak identifikatzea, ezagutzea eta aplikatzea.

**GO.2. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA.** Beste pertsona batzuekin eraginkortasunez erlazionatzea, norberak pentsatzen edota sentitzen duena argi adieraziz, idazkera eta adierazpide grafikoak lagun dituela.

2. menderatze maila: Idatziz erraztasunez komunikatzea, testuaren edukia eta lagungarri grafikoak egituratuz, irakurlearen ulermena eta interesa errazteko, luzera ertaineko idazkietan.

**GO.2. AHOZKO KOMUNIKAZIOA.** Hitzen bidez norberaren ideiak, ezaguerak eta sentimenduak argi eta egoki adieraztea, egoeraren eta entzuleen ezaugarrietara egokituz, haien ulerkuntza eta atxikimendua lortzeko.

1. menderatze maila. Norberaren ideiak ondo antolatuta eta ulertzeko moduan adieraztea, une egokian mintzatuz eta ekarpen egokiak eginez hala harreman egoeretan nola egoera formalago eta egituratuagoetan.

### Berariazko gaitasunak

**BG 1.** Modu aktibo, kolaboratzaile eta eraginkorrean parte hartzea dagokien hezkuntza-taldeetan, betekizun espezifikoen arabera, ikastetxeetako antolaketaren eta haien funtzionamenduaren inguruko ezagutza erabiliz.

**BG.2.** Familiekin kolaboratzeko mekanismo eraginkorrak ezartzea, ikasleen garapen integralerako lagungarriak diren komunikazio- eta orientazio- prozesuak garatuz.

**BG.3.** Ikerketen emaitzei buruzko hausnarketa eta balorapena egitea, gero irakaskuntza-praxiaren berrikuntza- eta hobekuntza-forma berrien bilaketan erabiltzeko.

**BG. 4-** Lehen eta Haur hezkuntzako ikastetxeen antolaketa eta haien funtzionamenduaren askotariko ekintzak ezagutzea, eta ideiak eta esperientziak lankideekin konpartitzea, hezkuntzaren praxia hobetzeari begira, hausnarketa eginez eta hausnarketaren eta elkarriketaren ondorioak praxira eramanez

**BG. 5-** Ikasgelako eta hezkuntza-testuinguruuetako behaketa sistematikoa erabiltzea, eta baita haien gaineko gogoeta ere, norberaren prestakuntza sakontzeko eta prozesuak zein emaitzak hobetzen laguntzeko bide bezala.

**BG.6-IKT-**ak modu egokian erabiltzea norberaren praxia eta hezkuntza-testuinguruak ikertzeko, informazioa interpretatzeko eta komunikatzeko, arazoak konpontzeko, eta trukerako eta prestakuntza etengabeko sareak eratzeko

## Edukiak

Bigarren praktikaldian zehar, ondoko eduki hauek jarriko ditu martxan ikasleak, betiere, dagokion didaktikari lotuta:

- Ikastetxearen tipologia
- Zentroa eta inguruaren arteko harremana
- Ikastetxearen barneko antolamendua eta funtzionamendua
- Gelako plangintza didaktikoa
- Gelako metodologia eta esku-hartze eredia
- Ikasketaren ebaluazioa
- Tutoretza plana

## Ikas-irakaskuntza estrategiak

Praktiketan zehar ikasleek bi tutore izango dituzte: unibertsitateko tutorea eta ikastetxeko tutorea. Tutore hauen laguntzarekin bideratuko dira ikasketa jarduera garrantzitsuenak, ikastetxean eta unibertsitateko mintegietan.

- Esperimentazio aktiboa
- Hausnarketarako behaketa
- Hausnarketa gidatua eta tutorizatua
- Ebaluazio hezitzailea

## Ebaluazioa

- Txostenak: %90
  - Gelako Txostena: %50
  - Ikastetxeko Txostena: %40
- Ikastetxeko egonaldia. Tutorearen ebaluazioa: %10

Praktikak gainditzeko ebaluazio elementu guztiak gainditu behar dira. Elementu bakoitzaren kopurua zein den erakusten ondoko taula honetan:

	Idatzizko gaitasuna (IG)	Ezagutzak (GB)	Guztira
<b>Gelako Txostena</b>	<b>%10</b>	<b>%40</b>	<b>%50</b>
<b>Ikastetxeko txostena</b>	_____	<b>%40</b>	<b>%40</b>
<b>Tutorearen ebaluazioa</b>	_____	_____	<b>%10</b>

## Dokumentazioa

Txostena egiteko gidak

Ikasgida

Didaktika desberdinetan landutako bibliografia

Datuak biltzeko baliabideak